



## San Trokaz eliza (Abadiño)

Abadiñoeko eliza arkitektura klasikoaren ariketa dugu, berritasunei uzkur eta Euskal Herrian sustrai sakonak dituen eraikitze modu tradizionaletara lotuta dagoena.

Horren frogagarri dira bere tipologia errenazentista barruan nabe bakarreko kapera garaiak dituen tenplua edo gotiko estiloko zainez osaturiko izartegi estalpenak. Gauza bera gertatzen da bere triglifoz eta metopezko lengoia klasikoarekin.

la lekukotasun dokumentalik ez duen antzinako tenplu txiki batek hartzen zuen gaur egungo elizak betetzen duen orube bera. Jakina da, bai horixe, 1732 urtean, Durangoko hargin batek, Juan de Herdoizak, altxatu zuela eraikin zaharraren ondoan egun ere ikus daitekeen dorrea.

Urteak beranduago Abadinoko elizateak tenpluaren berreraiketa osoa birplanteatu zuen, erantsitako dorrea errespetatuz. Lan hau bi epetan burutu zen 1762 eta 1783 artean, urte honetan konsagratu zelarik.

Obraren oin-plantak Ignazio Iberori enkargatu zitzaizkion. Loiolako maisu honek San Trokaz elizaz egin zuen proiektua ez zen berritasunengatik nabarmentzen, bai, ordea, monumentalitate eta eraikinaren kalitateagatik, batez ere egituraren elementuetan, non harlandu biluzi eta soil bikainak agertzen baitira.

Esualdeko maisu harginek eta arotzek burutu zuten Iberok egin zuen proiektua.

### Eraikina

Tamaina monumentalekoa, elementu desberdinak gehitzearen ondorioa da eliza. Bukea, tenplua, sakristia burualdean, dorrea oinaldean ezarria, eta Hego aldetik portada nagusia babesten duen arkupea.

Lehen momentuan, atentzioa ematen du bukeak, gurutzadura alienatua duen nabe zabala, buru poligonal konplexuan amaitu eta alboetan hiru kapera jarraian dituen, barrenerantz garatzen direnak kanpo alderantz egin beharrean.

Horrela, eraikinaren gunea harlangaitz lisoko hormak dituen oso elementu trinko bezala ikusten da kanpotik, nahiz eta Muntzaraztarren kaperak bereizketa txiki batera behartzen duen Ipar aldean.

Ostikoak, sendo eta irteera nabarmenez, arku pausuez ("lasterbideak") zulatuta daude alboetako ibilera errazteko.

Gangen mailaren azpian triglifo eta metopezko friso klasikoa doa, eta, haren gainean, burdinazko karela duen balkoi bat, Durangaldean errepikatzen den formula berezia.

Gangen maila klabeetan biltzen diren zain izartsuen gurutzeria sistema batez bideratzen da. Gauza bera gertatzen da alboetako kaperetan eta koruan, hau elementu gogoangarria delarik, nabearen zabalera osoa hartzen duen arku beheratu indartsu baten gainean.

Materialei dagokionez, eraikina harlangaitz luzituak ditu barnealdean eta harlandua fatxadan eta egiturazko elementuetan. Dorrea ere, fatxadan eraikinak buru duen oin-planta karratuko masta, harlanduzkoa da.


### Altzariak

Altzariak ez dauka arkitekturaren kalitatea, ezta gutxiago ere. Hala ere, eliza duintasunez jantzita dago Juan de Urkizak XVIII. gizaldiko erretaulagile durangarrak egindako hiru erretaula errokokoz -handiena, Garbinerena eta Animena-.

Badira bi aldare barroko naturalistak ere -Errosarioarena eta San Blasena-, XVIII. gizaldiko azken hamarkadakoak.

Baina beharbada sakristia da pieza interesgarri gehienak biltzen duen lekua. Besteren artean, bertako jauntxo baten erretratu neoklasiko bat, alabastro txiki bat, XVIII. gizaldiko zilarrezko errelikario handi bat edo Errosarioaren irudi barroko eder bat.

**Testua:** José Ángel Barrio Loza.



### San Trokaz eliza

Abadiño. (*San Trokaz plaza*).

#### Bisitak egiteko ordutegia:

Egunero, 18:00etatik 19:30etara.

#### Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Abadiño*)

- Abadiñoeko hilerria. (*San Trokaz plaza*).
- Iñigo de Abadiño dorretxejauregia. (*Zelaieta auzoa, 2*).
- Muntzaraz jauregia.
- Zeletabe jauregia. (*Zeletabe, 10*).
- Traña jauregia. (*Matieta plaza, z/g.*)

